

Prensa Oharra

Jar dezagun teknologia euskaldunon alde kanpaina Euskararen Nazioarteko Egunaren ardatza

Hiru urrats egitea proposatuko zaie herritarrei: telefonoak euskaraz konfiguratzea, nabigatzaileak euskaraz jartzea eta ahotsa www.gaitu.eus web orrian grabatzea.

Jendearen ahotsak biltzeko maratokia egingo da abenduaren 2an eta 3an Bulebarrean jarriko den karpan. Grabazioak egiteko ordenagailuak jarriko dira herritarren esku eta gailuak euskaraz konfiguratzeke azalpenak emango dira.

Guztira 160 ekintza antolatuko dituzte hiriko hamasei auzotan Euskararen Eguna ospatzeko.

Aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunean teknologiak eta euskarak hartuko dute protagonismo nagusia Donostian. Teknologia berriek, internetek batik bat, bizimodua eta gizartea eraldatu dute. Gauza bera esan daiteke garatzen ari den adimen artifizialari buruz. Teknologiaren eremu zabalean euskarak urrats garrantzitsuak egin dituen arren –hizkuntza teknologian, esaterako, itzultzaile neuronalak garatuz–, etorkizun hurbilean premiak areagotu egingo dira.

Datorren teknologian ahotsa ardatza izango da. Automobiletako eta telefonoetako jarraibideak ahots bidez jaso daitezke jada eta teknologia horrek garatzen jarraituko du etenik gabe. Teknologia garatzen ari diren enpresa erraldoiek (Googlek, Metak, Teslak, eta abarrek) 8-10 hizkuntza hegemonikoetan garatzen ari dira teknologia hori, gainerako hizkuntza txikiak eta gutxiagotuak, euskara tartean, kontuan hartu gabe.

Hiru urrats txiki zuretzat, jauzi handi bat euskararentzat

Gauzak horrela, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak teknologia euskaraz erabiltzearen garrantzia nabarmendu nahi du eta hiru ekintza sustatuko ditu.

Prensa Oharra

Lehenengo biak antzekoak dira: telefonoa eta internet nabigatzailea (Firefox, Chrome, eta abar) euskaraz konfiguratzea. Jon Insausti Turismoko , Kulturako eta Euskarako zinegotziaren esanetan bi urrats horiek garrantzi handia dute. *“Zenbat eta gehiagok erabili teknologia euskaraz orduan eta eskaintza gehiago izango dugu gure hizkuntzan. Tamalez, euskaldun gutxik dute telefonoa euskaraz konfiguratuta. Herritar askok eginez gero, telefonia enpresek euskara aintzat hartzeko aukera gehiago izango genuke. Gauza bera gertatzen da nabigatzailearekin. Gainera nabigatzailea euskaraz edukita, bilaketak egiterakoan, emaitza hobek, interesgarriagoak eta hurbilagoak ematen ditu”.*

Hirugarren ekintzak, Gaitu.eus izenekoak, donostiar euskaldun askoren ahotsen grabazioak lortzea du helburu euskarazko ahotsak biltzen dituen datu base erraldoia osatzen joateko. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak babesten dute Gaitu.eus ekimenean jasotzen diren ahotsak etorkizunean makinekin euskaraz hitz egin ahal izateko erabiliko dira. Gaitu.eus ekimenak Common Voice nazioarteko proiektuak eskaintzen duen plataforma libre erabiliko du

Abenduaren 2an eta 3an ahotsak grabatzeko maratokia Bulebarrean

Abenduaren 2an, 13:00etatik 20:00etara, eta abenduaren 3an, 11:00etatik 19:00etara, donostiar euskaldunek ahotsa grabatzeko aukera izango dute Bulebarrean jarriko den karpan. Herritarrez gain, hiriko eragileak eta entitateak ere bertaratzeko gonbita jasoko dute. Euskarako zinegotziak karpa bisitatzeko gonbita luzatu die herritarrei. *“Grabazioak egiteko aukera izateaz gain, zalantzak argitu eta informazioa jasotzeko gunea izango da. Herritarrak sentsibilizatu nahi ditugu, teknologia euskaraz erabiltzearen garrantziaz jabetzea garrantzitsua baita”.*

Bestalde, Donostiako KZ gunetan ere ordenagailuak jarriko dira ahots grabazioak egiteko.

Euskararen Eguna auzoetan

Azaroaren 18tik abenduaren 3ra 160 bat ekitaldi antolatuko dira Donostian barrena. Aieten, Altzan, Amaran, Amaraberrin, Antiguan, Añorgan, Bidebietan, Egian, Grosen,

Prentsa Oharra

Ibaetan, Igeldon, Intxaurrondon, Loiolan, Loiolako Erriberan, Morlansen eta Parte Zaharrean egitaraua atondu dute bertako batzordeek eta eragileek

Ekintza sorta zabala eta anitza prestatu da egun horietarako: Teknologia euskaraz erabiltzeko ekintzak; kultur ekintzak (antzerkiak, liburu irakurketak, kantu jirak, bertso saioak, zinema emanaldiak, kontzertuak eta abar), erabilera sustatzeko egitasmoak (mintzalaguna, mintzodromoak, eta abar), haurrentzako jarduerak edota familian egitekoak (pailazoak, bisita gidatuak eta abar).

Jarduera horiek guztiak ezagutzera emateko auzo bakoitzeko egitarauarekin eskuorriak eta kartelak argitaratu eta banatzeaz gain, informazioa eskuragarri egongo da donostiaeuskaraz.eus webean.